

oferplan.diariovasco.com



Goiburu Golf Club

Barrio San Esteban, s/n. Andoain. www.goiburugolf.com

Curso de iniciación al Golf

Aprende a jugar al golf con este curso de 4 sesiones en grupos reducidos. El material está incluido, tú sólo tienes que disfrutar de uno de tus deportes favoritos al aire libre

58€

descuento
52%finaliza
7 días
o hasta agotar
existencias

► más información: 902 945 946
(de lunes a viernes de 9 a 14h.)
Coste del establecimiento de llamada 0,13 €. Precio mínimo: 0,089 €.

► visítanos en San Sebastián (Santa Catalina 1)
y en Irún (San Juan Arria 4).
De lunes a viernes de 9:30-13 h. y de 16-19 h.

Oferplan
EL DIARIO VASCO .com


también te pueden interesar estas ofertas:

Formateo de disco
duro y reinstalaciónBEEP
Donosti, Renfería, Eibar e Irún.

39€

Lámpara con
sensor de
movimientoOferplan
Recogida en tienda.

8,95€

¿Quieres que tu
coche luzca como
nuevo?Carrocerías Raffier
Pol. Ind. Eziaño - Parcela 12. Hernani.

59€

Entradas para
Film Symphony
OrchestraRecogida de entradas
Taquillas del Kursaal

20€

Oferta disponible en oferplan.diariovasco.com titularidad de Sociedad Vascongada de Publicaciones S.A. con domicilio social en Camerino de Portuñeta 2, 20018 San Sebastián. Condiciones de uso y Protección de Datos disponibles en oferplan.diariovasco.com

Errumaniarra eta
gainera gaztea, bi
aldetatik susmagarria

'Dumitru' ipuin luzea idatzi du Koldo Izagirrek gaztetxoengan pentsatua. Errumaniarren kontrako aurreiritziak salatzen ditu

F. IBARGUTXI

DONOSTIA. Koldo Izagirrek 'Dumitru' ipuin luzea plazaratu du, hamabi urtetik gorako gaztetxoentzat pentsatua. Protagonista nagusiak hamahiru bat urteko mutiko bat eta neskatila bat dira, bata Errumaniatik etorritako Dumitru, bestea Euskal Herrian jaio-tako Olatz, biak ikastetxean gela berean ari direnak. Istoriaren mui-na, nolabait, honela laburbiltzen da, atzo Koldo Izagirrek esan zuenez: «Gazte izatearen izorramendua; euskalduna izatearen izorramendua; eta errumaniarra izatearen izorramendua izaugarria».

Behar ez den tokian eta behar ez den garaian fortunatu da Dumitru. Ertzaintzak harrapatu eta komisaldegira eramaten du, lapurretara egin duelakoan. Baina ez da horrela, eta ipuin honek salatu egiten ditu errumaniarren kontrako aurreiritziak.

Neskatilaren ama -Marta- eta amona -Felisa-, eta Dumitruen aita

-Cosmin-, dira istorioko beste protagonista batzuk. Ama eta amonaren arteko harremanak ez dira gozoak. Amaren lan-egoera ere izugarri okertu da. Bestetik, amona Felisak eta Cosminek ezagutzen dute elkar, honek kalean egiten baitu lan, soinu jotzen.

«Gaztetxo bien errebelandia, kontestaziorako ahalmena» da ipuinaren ardatzetako bat, autorearen hitzetan. Azaleko irudia, Juanba Berasategi aspaldiko lagunak egina, asko gustatu zaio Izagirrerri: «Esku hori, lapur delikatu baten eskua izan daiteke, eta baita Dumitruen inguruan ixten den zarrapoa, eskuburdina. Biak dira, nik uste».

«Estanpa» bidez egituratu du istorioa Izagirrek, eta «apaindurarik gabeko testua» omen da. Poetika ez omen dago testuan, baizik eta protagonistengana.

Bestalde, gazte-literaturari buruz jardun zuen luze Izagirrek. «Gazte-literaturara erreka-mailan dago sinbolikoki eta materialki», esan zuen. «Hemen hutsaren hurrengoa da. Adibidez, ez dago liburu-denda espezializaturik».

Frantziako egoerarekin konparatu zuen: «Hango Biblioteka Nazionalak Gazteentzako Literaturaren Zentroa hartu du bere baitan, era hartara adieraziz ez dela azpi-edo behe-literatura».

BAI HORIXE
PELLO ESNAI

AZTOREA



noak... Aztoarea geroxeago sartu genuen zerrendan. Orduan ohartuko ginen, agian, bat direla **aztoe** eta **azor**. Geroxeagoko lotu ditugu **aztoratu** eta **azorar**. Izebak behatzaz erakutsitako hura ere, beharbada, **aztoe** izango zen. Bai: **aztoeak** **aztoratu**ko zuen oíloa.

Gaur, egunero sumatzen dugu **aztoreren** bat. Batzuk ohiko ere bihurtu zaizkigu ia: **langabezia**, **gerak**, **ustelkeria**, **gezurra** **gezurra**ren gain...; beste batzuek bide hori daramate: **Ebola**, **txartel beltzak**... **Gazteagotan**, **oíloa** genuen babesle eta aterpe. Orain, **txitak** **babestera** jotzen dugu, **baina oílo** eta **koldar** **sumatzen** dugu **geure** **burua**.

Agian, **dena** **beste** **era** **batera** **ikusten** **ikasi** **beharko** **dugu**, **eta** **beste** **era** **batera** **bizitzen**. Ez gara **hegaziak**. Ez gara **abere** **hutsak**. Are **gutxiago**, **makinak** **edo** **automatak**. **Gizakiak** **gara**. **Badugu** **autonomiarik**, **eta** **gero** **eta** **autonomo** **izan** **gaitezke**. Ez dago **gure** **esku** **gertatzen** **zaigun** **gehiena**. **Gure** **esku** **dugu**, **ordea**, **gertatzen** **zaigunari** **nola** **erantzun** **erabaki** **tzeta**.

Agian, **horretaz** **ohartzean**, **hasi** **ko** **gara** **ez** **horren** **oílo** **jokatz** **en**.

so ume ginen. Behin behar-eta, izebarenean geunden. Oilategiaren inguruan zebilen oíloa, txita-andana atzetik zuela, haiei kasu handirik egin gabe, itxuraz. Bat-batean, zerbaitek **aztoratu** zuen oíloa, eta **txitak** **babestera** egin zuen zalapartan. Izebak zerura begiratu eta «hara han zapelatz» esan zigun behatza luzatuz; «hark izutu du oíloa; txitak harapatu eta eraman egiten ditu atzaparretan hartuta».

Minutu eskas batean gertatuko zen dena. Beriko gelditu zitzaizkidan irudi haiek itsatsita.

Gero ikasi genuen zer ziren hegazti harrapariak. Eta, zapelatzaz gain, badirela putreak, saiak, arra-